




# danbolin

2024 otsaila

257 ek



**Gorka Erostarbe:**  
**«Trikitiaren historiako  
handietako bat da  
Egañazpi»**





675 965 116 iraopottoka@gmail.com



Gesalaga kalea 8, Zestoa tel./fax 943 147 006  
WhatsApp: 661590009 farmazu@farmanorte.org



Tel. 943 851 868  
e-posta: lintsantaclara@hotmail.com



erdikalea 3  
tel. 943 147 196



tel. 943 536 314

Ordutegia:  
Astelehenetik ostiralera  
07:30-13:30, 16:30-21:00  
Larunbat eta igandetan  
07:30-14:30, 17:00-21:00



943 147 657



Gestoria Zubia

M<sup>a</sup> Jesus Zubia Olaizola  
Portale kalea 7, behea - 20740 ZESTOA  
Tel./FAX: 943 897 070



Zestoa  
AUTOESKOLA

Gesalaga 1 Tel. 943 148 524  
20740 Zestoa Gipuzkoa zestoa\_autoeskola@hotmail.com

Tel.: 943 14 73 44



ITZERGI BERRI  
9.5.14.9.17.8.6 Iraeta- Zestoa (Gipuzkoa)  
merenderobekoetxe@gmail.com

URTARRILA ENERO

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				


OTSAILA FEBRERO

1	2	3	4
5	6	7	8
9	10	11	12
13	14	15	16
17	18	19	20
21	22	23	24
25	26	27	28
29	30	31	

MARTXOA MARZO

1	2	3
4	5	6
7	8	9
10	11	12
13	14	15
16	17	18
19	20	21
22	23	24
25	26	27
28	29	30
31		

Egun osan irekita Abertu todo el día Mis topaketa 22:00etan Compañero de mis 22:00 h Iratza Abertu desde las 18:00 h Itzila Cerrado



Erdikalea 5  
Telf: 943 14 73 22  
20740 Zestoa (Gipuzkoa)



ABOKATUA GESTORIA  
KONTABILITATEAK ZERGAK  
INMOBILIARIA GESTIOA LABORALA  
KOMUNITATE ADMINISTRAZIOA ASEGUURUAK

Gesalaga kalea, 22 behea 20740 ZESTOA  
Tel./Fax.: 943 897 099 asesoriarin@asesoriarin.com



Olaizola eta Uria kalea - Iraeta  
943 147 067



GARRAIO SISTEMAK  
ERREMOLKEEN SALMENTA  
ERREMOLKEETARAKO OSAGARRIAK  
KARABANA, AUTOKARABANA eta FURGONETETARAKO OSAGARRIAK  
KONPONKETA eta MANTENTZE LANAK  
telf. 943 147 679  
www.caravan-park.net  
info@caravan-park.net



Gestoria Zubia

M<sup>a</sup> Jesus Zubia Olaizola  
Portale kalea 7, behea - 20740 ZESTOA  
Tel./FAX: 943 897 070



Portale Kalea 7, 20740 Zestoa  
tel. 943 147 088



kutixi eta pentsuak  
www.laiakdenda.com  
tfnoa: 943148134  
laiak.  
Lurraren onena  
Zestoaren bihotzean.



Landetxea eta jatetxea  
943 148 005



TXOKO TXIKI  
Okindegia eta taberna  
943 052 761



ZESTOA  
Kale Okerra 3  
Tel. 943 14 72 69

Itzulpen eta argitalpen zerbitzuak, s.l

Itzulpenak baino askoz gehiago!



Narkis Balentziaga, 2 T+34 943 148 306 bakun@bakun.eus  
20749 Arroa (Gipuzkoa) F+34 943 897 380 www.bakun.eus



UROLA  
ITURGINTZA

665 49 07 73



foru plaza, 4  
tel. 943 147 095



626 869 231 / 943 148 092  
erreserbak@aranetaerretegia.com

## Maitasuna

Otsailean maitasuna da protagonista. Cupido da nagusi. Bere geziak pertsona bat harrapatzen duenean, kontrolatu ezinezko desira batez betetzen omen du.

Joxe Mari Urbietta "Egañazpi" zebilen tokian, han izaten zen berarekin Cupido ere. Zenbat maitemin eragin ote zituen jainko mitologikoak bere urrezko gezi zorrotzekin? Zenbat amodioren sortzaile izan ote zen Egañazpiren ahots gozoa, malenkoniatsua? Juan Carlos Perez Itoiz taldeko liderrak zioen bezala, "ez zik esan polita ez dela Egañazpi kantatzen, Egañazpi kantatzen... Sakabiren *Larrinaga-Guerrini*-arekin eta gero, eta gero, atsedean bat hartzen duenian". Ezin konta ahala bikote maitemindu ziren, bai, Egañazpi eta beste artista ugari ibili ziren erromeri haietan. Pixka bat apartatuta baina musikaren alaitasuna xuabe-xuabe entzuten zen txokoetan, han egoten ziren bikoteak hitz bat esan eta bestea entzun, elkarri begira-begira, maitasunak lelotutako begiradarekin. Han ibiltzen ziren apaizak eta txibatoak ere, beleen pare, dena ikusi nahian eta bikoteei kargu hartzen; baina nola esan ba ezetz Cupido bezalako jainko bati? Cupidoz ez du, propio, hitz egiten zenbaki honetako artikulua baina Egañazpiren garrantzia ulertzeko makina bat gako ematen ditu. Beste gai batera pasatuz, maitasunaz ari garenez nola esplikatu, irakurle, zenbaki honetan aztertzen dugun mintzalagunen kontua maitasuna ez bada tarteko? Maitasunagatik jartzen da, neurri handi batean, euskara ikasten euskaldun berria, eta hizkuntzarekiko maitasunez konprometitzen da euskaldun zaharra dakien hori azaltzera eta berriei pazientzia handiz entzutera, eta denen artean mundu ederragoa egitera.

Bukatzeko, Cupidok barnean dituen ezaugarriak oso presente daude Inauterietan ere, zenbaki honetako beste gaia; maitasuna, desira, erotismoa, erakarpena, zoramena, transgresioa, identitate eta genero aniztasuna... horiek denak ibili ziren dantzan herriko kaleetan otsaileko bigarren larunbatean, nahiz eta argazki bakan batzuekin zaila den han bizi zena kontatzea.

On egin dagizula, beraz, irakurle, eta izan dezazula beti Cupido zeure alde!

*fernando argallus*



**DANBOLINEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA**

**Argitarabazlea:** DANBOLIN ZULO ELKARTEA. KULTUR EGXEA. AXUN ARRAZOLA PLAZA 1, 20740 ZESTOIA (GIPUZKOA)

722 609 265 INFO@DANBOLIN.EUS

**Danbolin:** NAIRA EXPOSITO, AMAIUR ARISTI, URKO CANSECO, SARA MATSUCANI, PERU GARCIA, JONE BERGARA, ITSASO WALIÑO ETA OHIANA CALPARSORO

**Kolaborabazle/azentzabaitz baldea:** NAGORE TELLERIA, JON ARGANO, FERNANDO ARZALLUS, ONINTZA IRURETA, MIREIA ORBEGOZO, EIDER ARRIZABALAGA, MAIDER ARREGI, NEREA ODRIOZOLA, ITSASO ZUBIRIA ETA MIKEL IRURE

**Disainua eta maketazioa:**

ENEKO ARISTI

**Inprimabegia:** GERTU (OÑATI).

**Lege gordailua:** SS-1108/2000

**ISSN:** 1576-9429



## MOTIBAZIOAREN BIDEAN

“Ez dadila haria eten”, esaten zuen kantu batek, eta aurreko enbiduan Hiartek aipaturiko gaztetxian auzian gaztetxearen auzian ere esaldi berdina aproposa iruditzen zait, beharrezkoa dugun espazio eder hori lortzeko. Aupa Zestuko Gaztetxia! “Jaio. Musika. Hil.” esaten zuen talde beraren beste kantu batek, eta zure galderari, nik uste, esaldi horrekin erantzungo diodala, Hiart. Belarrietan, behazetan, buruan, eztarrian zein bihotzean musika etengabe daukadalako. Momentu hauetan, Rodeorekin deskantsua hartua dugu denboraldi baterako, baino deskantsu hori kontzertuetara mugatzen da. Bi urte baino gutxiago, ia 100 kontzertu eman ostean, zuzenekoak albo batera uztea erabaki genuen aurreko abenduan. Bidaia zoragarria izan da eta



sekula imaginatuko ez nukeen lekuetan jo dugu, Hego Korea eta Japonen adibidez. Esperientzia ahaztezinak izan dira, baina denbora asko kentzen du horrenbeste kontzertu emateak, beraz, gu eta gutarren onerako hartutako erabakia izan da. Horrenbeste aldiz kantu berak jotzeak ere zeure kantuen gaitibu bihurtzen zaitu, momentu askotan hauetaz nekatu edo aspertzen naizelarik. Askotan diskoa kalera atera aurretik uzten diot gure kantuak entzuteari, mila buelta ematen dizkiodalako aurretik. Pentsa 100 aldiz zuzenean eta beste hainbeste entsegu jo ondoren... Horrekin ez dut esan nahi zuzenean jotzea ez zaidanik gustatzen, asko gustatzen zait eta kantu horiek jotzen disfrutatzen dut. Erlazio arraro bat eta kontraesan asko dauzkat gure kantuekin... Baina motibazioa bilatzeko orduan, momentu honetan, taldekideon motibazioa kantu berriak egitean aurkitu dugu eta horretan hasiak gara, presa eta datarik jarri gabe, orain bidaia honekin gozatzeko asmoz. Denbora libre gehiago edukitzeak ere, mendi lasterketa batzuetan apuntatzeko eta gogor entrenatzeko motibazioa eman dit. Azkenean, gure bizia etengabeko motibazio bilaketa bat bezala ikusten dut askotan eta beti nabil erronka berrien bila bide horretan. Motibazio bilaketaren harira, enbidua Jontxu Alberdiri bidaltzen diot, honako galdera eginez: horrenbeste urte entrenatzen, nondik bilatzen dek hire motibazioa lasterketetan jarraitzeko?

*mikel illarramendi*

**pintada.** ERRIGORA — ESKUTIK ESKURA KANPAINA. Beste urte batez ere, udaberria gerturatzearekin batera abiatu da Errigoraren "Eskutik eskura" kanpaina, "Eutsi geureari" lemapean. Urte osorako Nafarroa hegoaldeko produktu eta kontserbak eskuratzeko aukera paregabea da honakoa, beste behin ere, milaka lagunengana auzolanari esker, ekoizleen jatorrizko prezioan eskuratu baitaitezke produktuak.

Nekazarien egoera gero eta nekezagoa den honetan, gainera, inoiz baino beharrezkoagoa da horrelako egitasmoak bultzatzea; besteak beste, nekazariei ekoiztutako prezio duinetan ordaintzen zaielako eta, ahal den neurrian, merkatuko logikatik ateratzen dugulako elikadura bezalako kontu estrategiko bat. Bertakotasuna, euskara, auzolana eta nekazarietarako harremana dira Errigora balioak.

Azken urteotan, bizpahiru boluntario gabiltza Zestoan kanpainarako lanak egiten, egitasmoari geure ekarpena egiten. Otsailaren 25etik martxoaren 13ra izango da eskaerak egiteko aukera.

*gestoako errigorako boluntarioak*

## Dena eraldatzen da

Denboratxo bat pasa da dagoeneko Egañazpi kirol dendak atek itxi zituenetik. Hainbeste urteren ostean Kontxi eta Maiteri erretreta hartzeko eta apur bat deskantsatzeko garaia iritsi zitzairen (ondo merezita!).

Gogoan ditut itxi aurreko hilabeteetan inguruko pertsona askok egindako zenbait aipamen:

*-Izugarrizko pena ematen dit denda ixteak...ez al duzue zuetako iñork hartu nahi lekukoa?*

*-Betidanik ezagutu dugu denda hor... eta orain zer?*

Kontuak kontu, hilabete batzuetan dendan txukunketak egiten aritu ginen; behar ez ziren gauzak bota, aprobetxatu zitezkeenak gorde... ez zen lan makala izan!

Horretan genbiltzala ordea, zenbait koaderno ikusi genituen. (Oraingo dendarientzat normala da kontu gehienak ordenagailuz eramatea baina Egañazpi dendan ez zen horrelakorik izan, azken momentura arte eskuz egin ziren gauza denak),

Bi koaderno nagusi zituzten bertan; batean egunen saldutakoaren zerrenda idazten zuten eta egunaren bukaeran guztiaren batura eginez ixten zuten kutxa.

Bazuten, ordea, bigarren koaderno bat: jendeak etxera probatzeko eramaten zituen arropak apuntatzeko erabiltzen zutena. *“Halakoaren alabak 3 galtza pare”, “X baserriko semeak 2 zapatila pare”, “X-en amak 5 jertse”* eta abar luze bat.

Barre pila bat egin genuen koaderno horiek gainbegiratzeko, baina esan beharra dago tartean negar-malko batzuk ere erori zitzaizkigula. Kanean egunero gurutzatzen ditugun pertsonen izekak ageri ziren koaderno horietan eta baita dagoeneko gure artean ez dauden zenbaiten izenak ere. Argi dago Zestoa bezalako herri txiki batean kirol denda bat hainbeste urtean irekita egotearen arrazoi nagusia bat dela: herritarrek bertan erosten zutela.

Idatzi honen bidez eskerrak eman nahi dizkizuegu urte guzti hauetan zehar dendara hurbildu zareten guztioi eta bide batez, zuen erosketak herrian dauden denda txikietan egitera animatu nahi zaituztegu.

Asko gustatzen zaidan abesti batek hala dio, “Ez da ezer galtzen, dena eraldatu egiten da”. Egañazpi Kirolak dendak egin du bere bidea eta orain Irantzu kafetegiaren txanda da. Urte on askotarako izan dadila.



**La dolce vita.** *La dolce vita* da aperitif bat egitea Piazza del Campon, edota cappuccino bat hartzea egunsentiarekin batera San Marcon. *La dolce vita* da pizza bat jatea Trasteveren, bai eta Erroma gurutzatzea vespa baten. *La dolce vita* da ‘Vacanze romane’, eta *La dolce vita* da Dante.

*La dolce vita* da ere bai barua eteteko kafesnea eta tortilla pinxoa, igande goizetako paseoa eta ondorengo txikiteoa. *La dolce vita* da mendi tontorretako egunsentia, bai eta itsaso aurreko ilunabarra.

Bata eta bestea da *La dolce vita*, pertsonen, hauen iraganaren, balioen eta usteen arabera adiera bat edo bestea hartzen duena.

Izan ere, sinboloak baino ez dira gure bizitzetako plazer txikiak, norbere testuinguruari hertsiki lotuak direnak. Denboran zehar iraunkorrak, batetik bestera mugitzean geure motxila propioetan sartuak eramaten ditugunak. Zeri erantzuten dio, bada, deserriratuak duten elkartzeko joera horrek? Han-hemen sortzen dira euskaldunen lagun taldeak, gainerako herrialdeetako deserriratuaren taldeak sortzen diren bezala.

Iragana dugu babesleku, eta iragana dugu helduleku. Iraganera eraman ohi gaitu berritasunak oparitzen digun ziurgabetasunak, eta iraganera jotzen du etorkizuna irudikatzen asmatzen ez duenak. Deserriratuaren drama, eta integrazioaren paradoxa; aukera eta beldurra. Mundua ikusteko erabiltzen ditugun betaurrekoak aldatzeko beharra, sinbolo, balio eta uste berriak besarkatu behar izatearen zama.

Integrazioak, izan ere, horretan datza: nor bere zilborhestearekin haustean. Iraganak eskaintzen duen gotorlekua utzi eta ezezagunaren besoetara botatzean, udako epeltasuna neguko hotzagatik aldatzean, munduaren aurrean biluzik agertzean; finean, *La dolce vita* berriak sortzean. Horregatik da hain zaila “integratzea”, hitzaren adierarik hertsienean bederen. Zaharra berriagatik ordezkatzeko eskatzen duelako, ezaguna ezezagunagatik eta iragana, etorkizunagatik.

*ainitze urbieta*

*aimar etxeberría*



Argazkia: Joseba Arratibel

**EGAÑAZPI. EZINK ESAN POLITA EZ DELA...**  
**LIBURUA KALEAN DA. JOXE MARI URBIETA**  
**LIZASO (AIZARNA, 1920)**  
**PANDEROJOLEAREN BIOGRAFIA ONDU DU**  
**GORKA EROSTARBE KAZETARI BETERANO**  
**GAZTEAK. KULTURA ARLOAN ARITU IZAN DA**  
**IA BETI EROSTARBE, MUSIKAN NAGUSIKI.**  
**GAUR EGUN BADOK ATARIKO ARDURADUNA**  
**DA. EGAÑAZPIREN JAIOTERRIAN BILDU DA**  
**EGILEA danbolinEKIN.**

# EGAÑAZPI:

## SENA

### ETA

# IREKITASUNA

BAZUEN EGAÑAZPIK BESTE TRIKITIXA KANTARI  
 GUZTIENGATIK BEREIZTEN ZUEN KANTU MOLDE BAT:  
 MANTSOAGOA, MALENKONIATSUAGOA, INTIMOAGOA... ETA  
 HORREK LIMURTU ZITUEN MILAKA EUSKALDUN-JENDE,  
 TARTEAN JUAN CARLOS PEREZ BERA. ITOIZ TALDEKO  
 FRONTMAN IZANDAKOAK, BAKARKAKO IBILBIDEARI EKIN  
 ZIONEAN ATERATAKO LEHEN DISKOAN, *ILUNTZEAR*  
*DIHOANEAN* KANTAN, HALA DIO:  
 "EZ ZIK ESAN POLITA EZ DELA EGAÑAZPI KANTATZEN  
 SAKABIREN 'LARRIÑAGA-GUERRINI'AREKIN  
 ETA GERO ATSEDEN BAT HARTZEN DUENEAN" ...

**Giro epelak bildu gaitu astegun buruzuri bateko goizean, Aizarnan. Elkarrekin egin dugu handik Santa Engraziko bentarainokoa. Berriketaldiaren lehen zatia han egin dugu, Egañazpiren garaiko erromeria giroa irudikatuz. Gero panderojole eta kantari handiaren jaiotetxera jaitsi gara: Egañazpira. Eta, han, baserri bikain horren atarian, aulki bannatan jarrita, eta eguzkiak musua berotzen digula egin dugu berriketaldia. Haize izpiek mendi usaina dakarte eta, isiltzen garenean, udaberriutako neguan geraezin dabiltzan basatxoritxoen txorrotxia ere bai.**

**Road-trip** bat duk liburuaren hasiera. Jaioterritik, Zumarragatik, Azkoitirako bidea eginaz hasten duk kontakizuna, han bizi baita Juan Carlos Perez eta hari galdetu nahi hioan: ‘Zergatik Egañazpi?’ Zer erantzun zian?

90eko hamarkadaren erdi aldera entzun nian nik Juan Carlos Perezen kanta hori lehendabiziko aldiz, eta ez nekian nor zen Egañazpi hori... Eta, bai, Juan Carlosengana joan ninduan galdezka 30 urte geroago, Egañazpiren gainean peskizan hasteko. Eta hark esan zidaan trikitiari aparteko arretarik ez ziola jarri gaztetan, musikazale amorratua izan arren. Baina, herriko festetan-eta, Egañazpiren ahotsa entzutean beti sentitzen zuela hunkidura bat. Trikitia erritmo biziakin, goiko tonuekin, jai-giroarekin lotzen zuela, eta Egañazpirena diferentea zela; *tempo* geldoago batean abesteko joera, sentimenduekiko gertutasun bat, goxotasun bat... ordu-ra arte trikitilarien artean entzun gabekoa. Eta, jakina, horregatik aipatu zian *Atlantic River* bere diskoan.

#### Nor izan zen Egañazpi?

Trikitiaren historiako klasiko handietako bat. Santa Engrazipean sortutako gizon apal eta alai bat. Musikari autodidakta. Gizondu zenean Sakabirekin Euskal Herriko musikaren bikote ezagunena osatu zuena; bi ikono, disko grabatzen ere aitzindari izan zirenak. Sakabi plazatik aldendu eta gero ere Egañazpi jarraitu egin zian. Mende erdi barrena trikitian, Euskal Herriko plazak korrituz, hasierako hamarkadak beti Sakabirekin, gero beste lagun mordo batekin; gerraoste gorritik, 70eko txapelketen arora. Beti bere lekuan, berdin mendi giroko erromerian nahiz Donostiako Trinitate plazako oholtzan, epai-mahaiaren aurrean. Beti egoki panderoaz, eta beti barrenetik kantuan.

#### Ahotsa zen Egañazpiren bereizgarria, ala?

Erabat, denek esaten ditek hori. Zenbait grabaziotan duoa ere egiten zioan bere buruari. Bazian ohiko trikitia kantariengatik bereizten zuen kantu molde bat, baxuagoa, barrenekoagoa... horrek sentiberatasuna transmititzen zion entzuleari. Eta horretaz gain bere musikalitasuna adierazteko beste berezko joera batzuk ere bazituan. Edozein aire entzun ahala tarareoan hasten zuan, adibidez. Eta, bestea, mikrofonoarena: beren garaian hasi ziren erabiltzen mikrofonoak, eta, Egañazpi ezin eutsi-eta, mikrofonoaren oinarria tak-tak zapaltzen zian, perkusio propioa sortuz. Berezkoa zian hori dena, horregatik pena zian musika ez ikasi izana; esan izan zian, aukera izatera, gustura ikasiko zukeela solfeo, eta saxofoia edo bateria jotzen.

“NOSTALGIA  
BADAGO  
LIBURUAN;  
IDEALIZAZIORIK  
EZ!”



Duela ia 20 urte danbolinen Olaia Salegi bilobari kontatu zioan nola hasi zen, hamar urte koxkorrekin, Ilurdain baserriko panderojoleak imitatuz: “haien imintzioak egiten aritzen ginen, txapazko erretilu zahar batzuk etxetik hartu eta ermami guztiak eten arte, *tripiti, tripiti, tripiti...*”. Eta gero, noski, Santa Engraziko erromeria izan zuan inportantea harentzat... Musika eta trikitia bidegurutzez jositako molde bat duk eta zoriak ere pisu handia dik horretan. Egañazpi jaiotzetik bertatik bertara zeuka Santa Engraziko bentako erromeria. Han ezagutu zian Sakabik. Eta elkarri hitza eman ziotean biak ibiliko zirela batera, beti elkarrekin. Gerrak beren asmoa eten arren, zazpi urteren ostean -gerrako ibilerei soldaduskakoak erantsi behar izan zizkiotelako-, ekin zioten berriz ere. Eta, orduan bai, orduan hasita arrasto sakona utzi zitean. Landakandak esan zidaan Aiako herrian, eta inguruetan, bikote hori Beatles-en parekoa zela. Landakandaren ahotik Beatles entzunda harritu egin ninduan, baina bikotearen dimentsioari neurria hartzen lagundu zidaan. Sarritan iruditu izan zaidak, neugandik hasita, trikiti-giroa lotu izan dugula, erabat, zerbait zaharkituarekin, are zerbait itxi samarra izatearekin. Eta liburu honen lanketak balio izan zidak berresteko lehendik banian susmoa: trikitia justu kontrakoa dela, irekitasuna izan duela beti kanpoarekiko. Trikitia, sorreratik bertatik, zerbait izan bada izan da musika mo-

► du mestizo bat, irekia kanpotik zetozen eraginetara. Eta, beren garaiko ajeekin, noski, baina Sakabi eta Egañazpik ere bazitean jaidura hori, kanpokoarekiko. Ez zitean etsitzen arin-arin, fandango, porrusalda eta trikitiarekin huts-hutsik; jotzen zitiztean pasodobleak, fox-ak, baita garaiko musika poperoak ere... eta diskoa ateratzen ere aurrene-kotakoak izan ziren, Ez Dok Amairukoek baino lehentxe-ago.

### Nolako gizona zen Egañazpi?

Gizon lasaia eta umoretsua, horretan ere denak bat datoz.

### Zein izan duk lanik zailena liburu hau idaztean?

Informazio bilaketa. Idatziz, behintzat, oso urri dagoelako... Egañazpik pare bat elkarrizketa eman zizkioan *ARGI*ari, azken entrebista, berriz, aipatutako *danbolin*ekoa. Eta horietaz gain, laugarren bat zagok; Iñigo Aranbarrik egin ziona; Azkoitiko idazlea Sakabiren biografia idazteko lanetan ari zenean joan zuan Egañazpirengana. Nik dakidala ez zagok besterik. Horregatik neure buruari lizentzia eman zioat biografia-lan estandarretik ateratzeko, gaur egunera pixka bat ekartzeko, erreportaje-kronika eran idatziz. Horregatik ez diat erabat ezabatu neure burua kontakizunetik. Narratzailea hor egoteak kronika tonua indartzen dik. Eta erakusten dik ezjakintasunetik abiatuta egin dudana bidaia, Egañazpi ondo ezagutu duten pertsonak elkarrizketatuz.

### Eta hori eginaz, bide batez, bestela seguru samar itzalean geratuko liratekeen albo-istorio sorta bat erreskatatu duk.

Hori duk. Eta uste diat kontakizuna aberastu egiten dutela horiek, trikitiaren alderdi asko bistaraten direlako. Zumarragako trikitiarekin hasieran izan zuten lehia; Sakabi eta Egañazpi menditarrak ziren gehiago eta zumarragarrik kaletarrak... pentsa: hasieran erdaraz abesten zuten



“ASKOK,  
aurreirizizatik,  
TRIKITIA ZERBAIT  
IXTIZAT DAUKATE,  
BAINA MUSIKA  
MOLDE HAU  
HASIERATIK BERETIK  
DA MESTIZOA ETA  
IREKIA”

Zumarragan: *No te cases con la Lutxi / porque tiene diru gutxi / Cásate con la Maria / porque vende lotería...*

### Aizarnarra Egañazpi, Lasturkoa Sakabi, baina Zumarraga ere, heure sorlekua, baduk trikitalari habia... heuk zer harreman izan duk trikitiarekin?

Umetan asko entzun nian, aitaren bitartez batez ere. Baserritarra, pilotaria, eta erromeria-zalea da gure aita. Arrebak Egañazpiren iloba Martinekin ikasi zuen soinu-jotzen, txapelketa giroan-eta ibiltzen ginen denok...

### ...eta betekada izan zuan hirezat...

Bai. Nerabezaroan mundu horretatik libratu nahi-bat erne zitzaidan. Eta orduan hasi ninduan beste musika mota batzuk entzuten, gaztetxean-eta. Eta aldendu egin ninduan erabat. Gerora, ordea, konturatu nauk umetan trikiti hori dena izan ez balitz ez nukeela, seguru asko, beste musika horietara denetara bidea egingo. Hori dago nire musikazaletasunaren oinarrian.

### Beraz, ibilian-ibilian, etxera itzulera moduko bat egin duk, ezta?

Bai, uste diat esan daitekeela horrelako zerbait. Eta Egañazpiren gaineko liburu itzulera horretan errematea



### EGAÑAZPI. EZINK ESAN POLITA EZ DELA...

Pandemia garaian egin zion enkargua Trikitixa Elkartek, eta Erostarbek segituan sumatu zuen egin beharra zuela iraganera bidaia hura. Egañazpiren arrastoan egindako

bilaketak, bere haurtzarorako "etxeko trikiti-girora" itzulera ere ekarriko ziolako, herentzia horrekin bakea egin beharra zuelako.

Liburu gozagarria egin du, xumea eta aberatsa. Eta lortu du irakurleari transmititzea zertan datzan Egañazpiren jeinua.



duk, zirkulua ixtearen moduko zeozer. Nostalgiak fama txarra dik iraganeko kontuak aztertzera, baina nik uste diat nostalgiak lagundu dezakeela garai bateko giroak ulertzen, baita minak ulertzen ere... Eta nostalgia punttu bat ere bazagok nire liburuan. Ez dagoena duk idealizazioa.

### Zer galdetuko hiokek Egañazpiri, aurrean izango bahu?

(*Pentsakor geratu da*) Uste diat galdera bat egin beharko banio, zera galdetuko niokeela: *Trikitiak zer eman dizu zuri, Egañazpi?* Garai latzak bizi izan zituelako: gerra ezagutu zian, gero frankismoaren urterik latzenak. Etxean lana, baserrian lana, tailerlean lana, seme-alabak... eta herriz herriko ibilia. Gogorra! Liburuan ateratzen da, adibidez, seme baten mina, aita gutxi ikustearena. Nola leihoan egoten ziren zain-zain, txakurraren zaunkek aitaren etorrera noiz salatuko, *Lambretta* motorraren hotsa noiz entzungo.

Euskal herriko Trikitixa elkarteak argitaratutako 16. biografia lana da *EGAÑAZPI, ezink esan polita ez dela... izeneko hau*. Euskal letren eta kazetaritzaren munduan itzal handiko pertsonak idatzitako lanak denak. Besteak beste argitaratu dira *Elgeta, Sakabi, Primi eta Maurizia, Laja, Landakanda...* horien denen gaineko biografiak. Txalogarria da trikitia prestigiatu eta ezagutarazteko lan hori. Izan ere, liburua leitzean, gogoan trabatuta geratu zaizkidak esaldi hauek: *"Abandonatutako" generoa da hau, edo behar bezala ez ezagutua*. Juan Luis Zabala idazle eta kazetariak behin idatzi zuena datorkit gogora: *«Trikitixa kultura ofizialak folklorizatu egin du, eta kultura alternatiboak baztertu edo gutxietsi»*.

Bai, Juan Luisi, laguna baitiat, esaldi horrena aipatu izan zioat eta ez duk gogoratzen hori idatzi izana, baina neuri iltzatuta geratu zitzaidan. Neuk ere banuelako trikitiarekiko ezin kokatu bat. Erabat bat egiten diat Zabalak esandakoarekin. Kultura ofizialak, esan dezagun, oso une jakinetan bakarrik pro-

gramatu izan dik trikitia, oso eremu murrizta utzi zio. Eta, bestetik, kultura alternatiboak zokoratu egin izan dik, aurrejuzguen pisuagatik, zerbait zaharkitua eta, eskusiban, baserrikoa balitz bezala.

### Zein izan duk hiretzat libururako egindako ikerketak eman dian ezustekorik handiena?

Egañazpiren irekitasuna; harena eta Sakabirena, beren garaian European boladan zeuden joerak onartu eta berenganatzeko. Gigliola Cinquetti kantari italiarrak San Remoko jaialdian aurkeztutako *La domenica andando allà messa* bertsiatu zitean. Eta *San Bernardino* izeneko abesti ingeles bat ere bai. 90eko hamarkadako *triki-popak* eragindako olatua aipatu ohi da sarritan, baina hauek ere ekarri zitean modernizazio bat; 30 urte lehenago!

### Egañazpiren zein kanta duk, heurtzat, kuttuna?

*Fox-a*. Martin ilobak eta biek sortu zitean. Estatu Batuetan garatutako musika molde bat gureratu zitean; hara hor, berriz ere, irekidura. Pieza hori bakana duk. Seguru asko bere bizitzan grabatu zuen azkena duk, gainera, eta Egañazpiren esentzia zagok hor. Martinek kontatzen dik liburuan: *"Elkar estudiora joan ginen eta erraz egin genituen saioak... FOX piezan osaba soltatu egin zen, ohiko zuen moduan, eta ahapekako kantuan hasi zen, nola ez. Eta zein eder. Hor geratu da hori grabatuta betiko!"*

jon artano



Argazkia: Jon Artano

Zuri beltzeko argazkiak: familiak utzitakoak.

# MINTZALAGUN EGITASMOA

## Euskaraz berriketan aritzeko eremu segurua

ZESTOAN, AEK-K EUSKALTEGIKO ESKOLEZ GAIN, MINTZALAGUN EGITASMOA DAUKA. PROGRAMA HORRI ESKER, HIZKETAN HOBETO ARITZEA NAHI DUTENAK ETA HAI EI LAGUNDUKO DIETENAK ELKARTZEN DIRA. LAGUNTAILEAK BOLUNTARIOAK DIRA ETA EUSKARA IKASTEN ARI DIRENEK DOAN DUTE ZERBITZUA. EZ DAGO ZERTAN EUSKALTEGIAN IKASLE IZAN MINTZALAGUN-EN PARTE HARTZEKO. HELBURUA DA EUSKARAZ MINGAINA ASKATZEKO GUNE

LASAI BAT EDUKITZEA. ERREPORTAJE HONETAN, EGITASMOAN MINTZALAGUN DIREN HAINBAT HERRITARREKIN EGON GARA. ZESTOARROK TABERNAN EDO PASEATZEN IKUSIKO DITUZUE, HITZ ETA PITZ, EUSKARA PRAKTIKATZEN.



TINA ELOVIKOVA: "NEKAZARI  
DENEK EUSKARAZ HITZ  
EGITEN DUTE, GAZTELANIAZ  
EZ DUTE GAIZKI HITZ EGITEN,  
BAINA EZ DA BERAIEN  
HIZKUNTZA. ESKUALDEKO  
NEKAZARIEI ULERTU AHAL  
IZATEA NAHI DUT"

Tina Elovikova eta Erkuden Larrañaga

### TINA ELOVIKOVA ETA ERKUDEN LARRAÑAGA

Erkuden eta Tina Mintzalagunen hasiberriak dira, joan den udazkenean hasi ziren. Hirugarren bat ere badute taldean, Agurtzane Martin, nahiz eta hizketaldi honetan egoterik ez duen izan. Tinak hirugarren ikasturtea hasi du Zestoako euskaltegian, eta irakasleak gomen datu zion mintzapraktika egitea, ikasgelan ez dutelako nahikoa denbora hizketarako. Bere ustez, euskaltegiaren gehigarri bat da Mintzalagun, egitasmo polita, eta

hainbat gairi buruz hizketan aritzeko toki aproposa. Errusiatik etorrita, zazpi urte daramatza Zestoa, eta konturatu da hemengo jendearentzat hizkuntza babestea oso garrantzitsua dela: "Niretzat ere, hizkuntza eta kultura oso garrantzitsuak dira, beraz, hemengo hizkuntza jakitea ere bai, pixka bat egitea behintzat, kostatzen zait eta!". Laguntzaile du Erkuden. Bere kabuz eman zuen izena egitasmoan. Euskalduna den neurrian, euskaraz mintzatu nahi duten herritarrei lagundu nahi die. Erkudenek badaki nola hitz egitea komeni den ikasten ari den pertsona batekin: "Saiatzen naiz egokitzen, ez dut hitz egiten zestoar bat bainantz bezala, baizik eta polikiago, euskara batuan, momentu honetan hori behar dute. Entzun egiten diet, ez naiz zuzentzailea. Bere buruengan konfiantza hartzen joan daitezen saiatzen naiz". Leku

JABIER MANTECA: "EZ DUT  
ESAN NAHI JENDEAK GAIZKI  
EGITEN DUENIK, BAINA  
HERRIAN ZUEN  
BEREZITASUNAK DITUZUE,  
ETA EUSKALDUN BERRI  
BATENTZAT ULERTZEKO  
HIZKERA ALDREBESA DA"



Jabier Manteca eta Jexux Odriozola

seguruan sentitzea da helburua, gerora kalean has daitezten. Tinak, orokorrean, gaztelaniaz egiten die zestoarrei, baina batzuek euskaraz egiten diote, eta ulertzeko nahiko lan izaten du batzuetan. Bi pasadizo kontatu dizkigu. Behin baserritarrek antolatutako ogasunari buruzko ikastaro batera joan zen Azpeitira, eta ez daki azpeitiarrez egin zuen edo zer, baina ez zuen ezer ulertu. Eskerrak grabagailua jarri zuen, etxera joandakoan senarrari eman zion grabazioa hark entzun zezan. Beste batzuetan, herritarrei ez die ulertzen, eta esaten dienean ez duela ulertu, gauza bera ozenago esateko joera omen daukagu. Dena den, berak nahiago du herritarrek euskara batuan baino, bertako hizkeran egitea, baserritarra izanda, giro horretan ibiltzen delako eta hizkera hori ulertzea komeni zaiolako: "Denek euskaraz hitz egiten dute, gaztelaniaz ez dute gaizki hitz egiten, baina ez da beraien hizkuntza. Eskualdeko nekazariei ulertu ahal izatea nahi dut".

Erkudenek herritar euskaldunei mezu bat helarazi nahi die: "Gure herrian jendeak euskaraz hitz egitea nahi baldin badugu, guk ere zerbait egin beharko dugu". Ikasita inor ez dela jaio dio, eta ahalegin txiki bat egitea dagokigula, euskara batuan hitz eginda, entzuteko pazientzia hartuta, presarik gabe, barre egin gabe...

Tinak eskerrak eman nahi dizkie Mintzalagunen bidelagun aritzen diren guztiei, haien denbora euskara ikasi nahi dutenen zerbitzura jartzen dutelako. Zestoako Udalarari ere egin dio keinu, euskara ikasteko balia bideak eskura jartzen dituelako, eta hala, doan ikasi daiteke euskaltegian. Hala dio Tinak: "Ez dago aitzakiarik ez ikasteko, gogoia da behar den gauza bakarra!"

## JABIER MANTECA ETA JEXUX ODRIOZOLA

Jabier eta Jexuxekin Laiak dendan elkartu gara. Makina bat aldiz egin zuten hitzordua denda-tabernan, mintzapraktika egiteko. Gaur egun ez dira hor gelditzen, berriketa euskaraz Oñatira bidean egiten dute, autoz bandako entsegura doazela. Beraz, dendako

leihu ondoan, Mintzalaguni buruzko gogoetak egiten hasi gara.

Nerea Odriozolak, euskaltegi-ko irakasle eta Jexuxen alabak, esan zion aitari Jabierrentzat mintzalagun egokia izan zitekeela. Jabierrek bazuen ahozkoa lantzeko beharra. C1 maila ia gainditu zuen duela urte batzuk, euskaltegian hainbat urte egin eta gero, baina ahozko azterketa ez zuen gainditu. "Gramatika ondo, baina ahozkoan gabeziak dauzkat".

Erreportajea idatzi duenak duela hainbat urte ezagutu zuen Jabier herriko natur taldean, eta ordurako oso txukun moldatzen zen euskaraz. Gaur egun,

Jexuxen laguntzari esker, are hobeto hitz egiten du. Jexuxekin ondo moldatzen da zeren, "Jexuxek batuan hitz egiten du, hizkera laua dauka, ulertzeko modukoa. Ez dut esan nahi jendeak gaizki egiten duenik, baina herrian zuen berezitasunak dituzue, eta euskaldun berri batentzat ulertzeko hizkera aldrebesa da". Kalean baino, bestelako gune batzuetan erosoago sentitu izan da, ulermenari dagokionez. Duela hainbat urte herrian lanean aritu zen natur taldea aipatu du, batetik: "Gaia ezagutzen duzu, bada-kizu zein izango diren nondik norakoak, jarraipena egitea errazagoa da, baina lagun artean denetarik hitz egiten duzu, hiru minutuan bost gai ateratzen dira". Natur taldean bezala, zinegotzi izan denean ere, udal batzarretan ondo moldatu dela aitortu digu. Alkateak euskaraz aritzera animatu zuen eta halaxe egin ditu lau urteak, euskaraz.

Oso bitxia da Jexuxek Jabierren euskara mailari buruz kontatu diguna: "Batzuetan jasoegi hitz egiten du, herriko batez beste-koa baino goraxeago dagoela esatera au-

ISABEL RUIZ: “ASKO LAGUNDU DIT HITZ EGITEKO, HANKA SARTZEKO BELDURRIK GABE, LOTSA GALTZEKO. ASKO LAGUNDU DIT ULERTZEN ARI NINTZELA SENTITZEKO, HITZ EGITEN ARI NINTZELA, EUSKARAZ BIZITZEN ARI NINTZELA. ORAIN SEGURU SENTITZEN NAIZ BESTEETI LAGUNTZEKO”



Asier Soria, Ignacio Fouilloux eta Isabel Ruiz

#### ISABEL RUIZ, ASIER SORIA ETA IGNACIO FOUILLOUX

Isabel, Asier, eta Ignacio hasiberriak dira, Mintzalagunen pare bat saio baino ez zituzten eginak elkarriketatzera joan garenean. Ostiraletan elkartzen dira, tabernan. Asteko lanak bukatuta, lasai eta giro goxoan aritzeko proposatu zuen egun hori Asierrek. Ignaciok eta Asierrek ahozkoa lantzeko be-

sartzen naiz. Hizkera arrunta falta zaio, batzuetan jendeak ez dio ulertzen zer esaten duen. Maila badauka, baina kaleko hizkera eta bizkortasuna falta zaizkio. Hori, erabilita lortzen da, entrenatuta”. Jabierrek baieztatu du Jexuxek esandakoa: “Batzuetan esaten didate ez didatela ulertu. Nola zuk ez nauzula ulertu? Ulertzen ez duena ni naiz!”. Hiztegi aberatsa dauka Jabierrek. Gogoratu da ‘apetatsu’ hitza esan zuela behin, eta ez ziotela ulertu Zestoan: “Nik ez dakit beste era batera esaten, eta herrian, agian, gaztelaniaz esaten dute”.

Jexuxek herritar guztiak animatu nahi ditu Jabierri euskaraz egin diezaioten, kontu pixka batekin ibilita, lasai eta garbi hitz eginda.

Izan ere, Jabierrek herritar gehienekin gaztelaniaz egiten du, eta herritarrek ere gaztelaniaz egiten diote.

Galdetu diogu ea nahi duen jendeak berari euskaraz egitea, eta erantzun digu bera ez dela inor herritarrei esateko zer egin behar duten. Dena den, erreportajea idatzi duen honekin beti euskaraz hitz egiten du, eta ulertu diogu esperientzia ona izan dela: “Zuk beti euskaraz egiten didazu, bada, horrek bultzatzen nau euskaraz egitera. Euskarari eusten saiatzen naiz, eta ezin badut, gaztelaniara pasatzen naiz. Zuk ulertzen duzu nire mugara iritsi naizela tarte horretan, eta ez dago arazorik. Beti egin dugu euskaraz”.

harra daukate. Isabelek berak Mintzalagunera jo zuen duela hiru urte euskara praktikatzeko. Orain, bera da laguntzaile. Oso garbi dauka zertarako balio duen Mintzalagunek: “Asko lagundu dit hitz egiteko, hanka sartzeko beldurrik gabe, lotsa galtzeko. Asko lagundu dit ulertzen ari nintzela sentitzeko, hitz egiten ari nintzela, euskaraz bizitzen ari nintzela. Orain seguru sentitzen naiz besteeti laguntzeko”.

Asierren ustez, jendearekin modu informalean hitz egiteko aukera ederra da Mintzalagun. Ez du euskara egiaztagiririk behar, ez du ahaztu nahi ikasia zuen euskara eta hobetzeko asmotan gerturatu da Mintzalagunera. Bere iritziz, euskara praktikatzeko modu oso egokia da, askea, eta presiorik eragiten ez duena. Portugaletetarrari herriko jendea ezagutzeko balioko diola iruditzen zaio.

Mintzalagunen zergatik dagoen galdetu diogunean, Ignaciok Zestoan euskara ikasteak duen garrantziaz hitz egin digu.

“IKASTEN ARI  
DENARENZAT  
SEGURTASUN  
EREMUA DA; LASAI  
EGOTEKOA, INORK  
BARRE EGINCO DION  
BELDURRIK GABE,  
KONFIANTZAZKO  
GIROAN, ETA ONDO  
PASATZEKO TXOKOA”



Naroa Vazquez eta Garbiñe Arana

Ezinbestekotzat jo du. Duela hiru urte hasi zen euskara ikasten, Txiletik hona bizitzera etorritakoan: “Hiztegi asko daukat buruan gordeta, baina mihia askatzea behar dut”. Giro eroso, segurua eta konfiantzazkoa eraikitzea espero dute hirurek. Ignaciok dio Mintzalagun proba pilotua dela, gero herrira jauzi egiteko, kalean zestoarrekin hitz egiteko. Isabelek ‘saltoa’ hitza erabili du, eta beste biek segituan ulertu dute esanahia. Izan ere, kalean euskara ulertzea eta euskaraz egitea Mintzalagunen baino gehiago kostatzen zaie. Biei kostatzen zaie zestoarrei ulertzea, “euskalkiak zailak dira” dio Ignaciok, eta Asierrek berriz, “gipuzkera oso itxia da eta azkar hitz egiten duzue”. Saiatzen dira, batzuetan, euskaraz egiten kalean, baina nekeza egiten zaie, eta nahiko erraz hasten dira gaztelaniaz hizketan. Hirurak dira kanpotik etorritakoak, eta ados daude herritarrek eskertzen dietela euskara ikasten egiten duten ahalegina, “jende oso jatorra eta irekia da”, dio Ignaciok. Dena den, Isabelek eskertuko luke herritarrek ere txipa aldatzea, alegia, konturatzea euskara ikasten ari den jendea dela, pazientzia behar dela, eta poliki hitz egitea komeni dela. Berak dio ohikoa dela herritarrak segituan gaztelaniara pasatzea, konturatzen direnean aurrekoak ez diola ulertu: “Ikasten ari denaren ahaleginak eta herritarren laguntzak batera joan behar dute”. Asier eta Ignaciok Mintzalagun pixka bat dastatzeko denbora baino ez dute izan, baina Isabelek ondo daki nolakoa den esperientzia. Euskara hobetzeko beharra duten herritarrak animatu nahi ditu parte hartzera: “Askok ikasten da hitz egiten, entzuten, jendea ezagutzen dugu. Hemen bizi nahi baldin badugu, bertako hizkuntza eta kultura ezagutzea oso garrantzitsua da, bestela gure munduan gelditzen gara eta oso gauza politak galtzen ditugu”. Hiruren artean borobildu dute Mintzalagun egitasmoa: dibertigarria, ximplea eta atsegina.

#### ISABEL RUIZ, NAROA VAZQUEZ ETA GARBIÑE ARAMENDI

Isabel, Naroa eta Garbiñeren abentura bitxia da. Mintzalagunen ohikoa da ikasten ari denak eta laguntzen diotak egunerokoan harreman gutxi izatea, sarritan egitasmoan ezagutzen dute elkar. Hirukotea, ordea, kuadrilla berekoa da. Naroak dena gaztelaniaz egiten zuen Isabelek, eta Garbiñek bietara. Isabeli Mintzalagun proposatu zioten euskaltegian eta berak erabaki zuen mintzaki-deak kuadrillako Naroa eta Garbiñe izango zirela. Araua ezarri zuten hiruren artean: astean behin elkartzeko ziren euskaraz egiteko. Halaxe hasi ziren, eta azkenean, araua ohitura bihurtu da. Hasieran, Mintzalagun ostiraletan bazen, orduan baino ez zuten euskaraz egiten, baina denbora pasa ahala, gainerako egunetan ere euskaraz egiten hasi ziren. Garbiñeri ez zitzaion oso zaila egin, lehen ere bietara egiten ziolako, eta bera euskaraz gaztelaniaz baino hobeto moldatzen delako. Naroak, berriz, airtortzen du, Mintzalagun izan ez bazen, oso zaila egingo zitzaiola Isabelek hizkuntza aldatzea. Mintzalagunek lortu du kuadrillako hiru kideen hizkuntza ohiturak aldatzea, eta Naroak gehitu du lorpena Isabelena dela: “Berak ez bazuen helburutzat hartu euskara ikastea, Isabel dagoenean erdaraz egiten duen kuadrilla bat izango ginatekeen. Berea da meritua”.

Bai Naroak eta bai Garbiñek beste hainbat mintzalagunek moduan deskribatu dute egitasmoa: ikasten ari denarentzat segurtasun eremua; lasai egotekoa, inork barre egingo dion beldurrik gabe, konfiantzazko giroan, eta ondo pasatzeko txokoa. Naroaren ustez, horrelako espazio batean ikasten ari dena gehiago ausartzen da, eta besteei entzunez belarria ere egiten du.

Herritarrak egitasmoan parte hartzera animatzeko eskatu diegu. Garbiñek dio euskal hiztunen komunitateak jendeari harrera ona egin behar diola, hizkuntza erakutsi behar diola etorri direnei: “Askotan ez dakite ezta hizkuntza bat dagoenik ere. Erakutsi behar diegu nola bizi garen euskaraz, elkar ezagutu behar dugu, eta elkarri bizipenak kontatu”.

#### onintza irureba azkune



Mintzalagunen parte hartzeko deitu 670 420 048 telefonora

# ZESTOAN

*uste baino gehiago*

## Janaridendak

**ELORZA**  
janaridenda  
943 147 660

**ARRAINDEGIA**  
**KONTXI**  
ZESTOA 943 148 247  
AZPEITIA 943 811 946

**mian**txa  
943 147 015



**unide**  
egunero janariak  
943 558 005

**UZKUDUN**  
harategia  
Erdikalea, 5  
Tel. 943 147 023  
ZESTOA

## Teknologia, liburu, paper denda

943 147 110  
**mairl**  
LOTERIA  
ESTANKOA

**LOTXOLO**  
Tel. 943 147 133

**Zbitt**  
Tlf. 943 148 010

## Etixerako osagarriak

**ONK**  
943 147 081-647 683 643

**UGARTE**  
burdindegia s.l.  
943 147 154

## Arropa eta oinetakoak

**IRAOLA**  
ZAPATEGIA  
617 269 408

**lili** 943 148 061

## Edertasuna eta ongizatea

*beatriz izeta*  
943 148 322

**KERALA**  
ongizate txokoa  
679 885 173

**S**  
ESTILISTAK  
680 802 777



**ZESTOA**  
**ZURETZAT**




# ĩñauteriak 24





# AMILLUBI

## LURRA TAUPAKA



Gipuzkoan, Urola ibaiaren meandroan, 90.000 m<sup>2</sup> lur erosiko ditu Biolurrek kolektiboan, laborari agroekologikoek lurrak izan ditzaten eta herritarrok elikagaiak.

**Denon laguntza behar dugu:** Babestu Amillubiko metro koadro bat lur. Informazio osoa eta ekarpena egiteko aukera:

[www.amillubi.eus](http://www.amillubi.eus)



# adinekoen txokoa

Azaroaren 30eko  
GREBA FEMINISTA

*Ritari eta Txarori (jubilatutako) bi galdera:*

Zein balorazio egiten duzue azaroko Zaintzaren Greba Feministaren inguruan?



Gure ustez, Euskal Herriko historian data garrantzitsu bezala jasoko da 2023ko azaroaren 30ean egindako aurreneko Greba Feminista Orokorra. Gure balorazioa baikorra da, Euskal Herri mailan bezala, baita herri mailan ere. Zaintzaren egoerari ikusgarritasuna eman zaio, azpimarratuz zaintza lanaren ardura eta karga emakumeen gain jarri izan dela eta lanbidetzat zaintza duten pertsona gehienak emakumeak eta arrazializatuak direla. Horrekin batera salatu da zaintza negozio bihurtzea, Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiek zaharren egoitzak eta osasun sistema enpresa pribatuen esku uzten baitute. Mugimendu feministak urteak daramatza zaintzaren inguruan hausnartzen eta zaintza-lanen desorekak salatzen, lanok ezkutukoak, prekarizatuak, feminizatuak eta arrazializatuak baitira. Greba egitea, aldarrikatzeko modu bezala erabaki eta onartu zen, erabakiak hartzeko eskumena duten erakundeen arreta lortu eta neurriak har zitezten. Greba ez da helburua, abiapuntua edo tresna baizik. Eta ibilbide luzea dugu. **Illo honetan herrian zerbait egin daiteke?** Guk, 3Zko kide eta herritar bezala, denbora daramagu zaintza komunitario eta solidarioa eraikitzeko urratsak ematen.

Pentsionistak Martxan taldea

30ek  
23.korrika

# HARRO HERRI

Irundik Baionarat  
2024ko martxoaren 14tik 24ra

## KORRIKA AMAIERARAKO AUTOBUSA BAIONARA

Data: 2024/03/24

Irteera ordua: 09:00 Zestoak

Geltokiak: Zestoako autobus geltokia

Iraetako autobus geltokia

Arroabeko autobus geltokia

Itzulera: 19:00 Baionatik

Prezioa: 5€

Salmenta tokiak: Fati eta Portale

Antolatzaileak



ZESTOAKO UDALA



AIZARNAZABAL  
udala

# PROTESTA



Protestak beti sentimenduak mugituko baditu ere, egindako hori gero herriak edo auzolanean konpondu behar bada nire iritziz ez da zilegi. Ikusi egin behar da egindakoa rekin nor den kal tetu zuzena.

**olatz bereziartua**  
23 urte



Grafitien aldekoa naiz, mezua duten mural landuak ere maite ditut. Are gehiago, zona goibelei argia ematen diotenak. Baina pintada azkarren alde nagoenik ez nuke esango. Egia da atenzioa ematen dutela, baina gaur egun horretarako euskarri hobeak baditugu.

**ohiana calparsoro**  
33 urte



Nere ustez ez dago ondo hori egitea. Gainera gero lana ematen du garbitzeak eta gu herri txiki bat gara eta ez daukagu horretarako dirudik.


**andres pardo**  
76 urte



Oso zatarra iruditzen zait, nere ustez ez da inolako paretetan eta inolako kasutan egin behar pintadarik.

**joxe mari goenaga**  
65 urte

HERRIKO EDOZEIN HORMETAN PINTADAK EGITEA ZILEGI DELA IRUDITZEN ZAIZU?



(Erantzuleak guztira: 111)

- Ez
- Zenbait egoeren aurrean bai
- Bai
- Ez dakit



Ate eta kristalak puskatu dituzte eta astebetetz geldik egon da igogailua. Konponduta dago berriro.

Zestoako eskola txikian su eman zioten jolas parkea eta lurra aldatu dituzte.

...e de



## MARTXOA

**01** OSTIRALA  
19:00etan Jagoba Astiazaran eta Iñar Sastreren "Arineketan. Zaharrak berri" diska/liburuaren aurkezpen-kontzertua kultur etxean. (Danbolinekin elkarlanean)

**02** LARUNBATA  
Bertso afaria jubilatuen tabernan, Jone Uriá eta Andoni Egaña bertsoarietara. Gai-jartzaile: Zestoako bertso eskolako kideak.

**05** ASTEARTEA  
Kontaidazu Ipuin Bat ekimenaren ikasturteko 10. saioa liburutegian.

**06** ASTEAZKENA  
18:30. "Ez dadin bizitza eten" liburuaren aurkezpena eta egileekin solasaldia, Portalen.

**08** OSTIRALA  
19:00. Zestoako emakume feminista taldeak deituta ekitaldia, plazan.

**10** IGANDEA  
Korrikaren aldeko mendi irteera Xoxotera.

**12** ASTEARTEA  
18:00. Herri Hezitzailea Prozesu parte hartzailearen 3. saioa Arroabean.

**15** OSTIRALA  
Korrikaren aldeko Txotxa.  
\* 20:00. XII. Erriarraitz Bertso sariketako bigarren kanporaketa Lau Iturri elkartearen.

**17** IGANDEA  
Zestoako Krosa. Iñaki Irureta Memoriala.

**19** ASTEARTEA  
Korrika txikia herrigunean.

**20** ASTEAZKENA  
Korrika pasako da Zestoatik goizeko 4ak aldera \* Kontaidazu Ipuin Bat ekimenaren ikasturteko 11. saioa.

**22** OSTIRALA  
Odol ateraketak Alonderon.

**ARGIOLAK BAZKIDEAK LORTZEKO MAHAIK** jarriko ditu Arroabean eta Aizarnan martxoak 1ean eta Zestoan martxoak 2 eta 3 eguerdian eta arratsaldean, plazan.

**GARBINE LARREAREKIN SENDA-BELAR IKASTAROA PORTALEK ANCOLACUTA:** Emakumearen zikloak eta osasun hormonalak. Apirilak 30, maiatzak 28 eta uztailak 2. Bi orduko hiru saio. Zestoarrek izango dute lehentasuna. Izena emateko eta informazio gehiago 688 611 098 telefono zenbakian.

## GAZTELEKUKO MARTXOKO ESKAINCZA

1-2: jolas librea, gaztelekuan (DBH).  
7: poltsa/nezeser margoketa, gaztelekuan (3. zikloa).

8: emakumeen eguna, gaztelekuan (DBH).  
9: sukaldaritza: pastak, gaztelekuan (DBH).

12: "ihes-gela", gaztelekuan (1. zikloa).  
Txandak: 16:45etik 17:15era; 17:30etatik 18:00etara; 18:15etik 18:45era; edo 19:00etatik 19:30era. Aurrez izena eman behar da. Plaza mugatuak.

14: haur eta nerabeen gurasoentzat hitzaldia: "osasun mentala eta nerabeak". 17:00etan, Aizarnako kultur etxean. Hizlaria: Estibaliz Ansotegi. Aurrez izena eman.

15-16: Korrikarako girotzen, gaztelekuan (DBH).

21: diputazioko udalekuetako izen-emateak, gaztelekuan (3. zikloa).

22-23: diputazioko udalekuetako izen-emateak, gaztelekuan (DBH).

Haurrentzat jolasak, **BARBANTXO**ekin: Martxoak 1 eta 15: Arroabean.

Martxoak 8 eta 22: Aizarnan eta Zestoako herrigunean.

Martxoak 6 eta 20: HH4-HH5eko haurrentzat saioa, gaztelekuan.

Neguan ere, balkoi,  
terraza eta lorategi  
**koloretsuak**



**KIMUBAT**  
— GARDEN

Urrestilla bidea z/g - Azpeitia | 943 15 00 85  
kimubat@kimubat.eus - www.kimubat.eus

**Taxi Zestoa**

9 Eserleku  
Eneko 603 394 729 Joseba 670 431 906

*Surya Paz Marticorena*

Osteopatia - Kirol masajea  
605 765 140 Portalea kalea 1, Behea B - 20740 ZESTOA (Gipuzkoa)

**ZESTOAKO SAN JUAN FUNDAZIOA**  
1919-2019

Bidezarra, 5 20740 Zestoa 943 147 019  
e-posta: zestoakosanjuan@gmail.com  
www.zestoakosanjuan.blogspot.com

Gesalaga kalea 20  
Zestoa 20740

**MIZU**  
Hortz Klinika

mizuclinicadental@gmail.com  
ZURIÑE ECHEBERRIA RENOBLES COLEG. 797  
IDOIA ECHEBERRIA RENOBLES COLEG. 868  
Telf.: 943 14 78 28

**Fisioterapia**  
**Osteopatia**

eskua  
Therapy Group

— 943 29 08 99 —  
Toribio Alzaga 20 - 22 20740 Zestoa

**GISASOLA**  
EGOITZA - RESIDENCIA  
Toribio Alzaga 6 - Zestoa  
943 897 077 / 688 842 848 residenciagisasola.com

# argiola

**Energia berriztagarrien komunitatea**

- Herritarron ahalduntzea
- Energia eredu eraldatzailea
- Tokiko proiektuak
- Burujabetza energetikoruntz

Elkarrekin bidea egin eta  
proiektua babesteko...

## BAZKIDETU ZAITEZ!

**Bazkide egiteko 10 euroko ekarpen bakarra egin behar da.**

**Bi modu dituzu:**

- a) On-line egiteko [www.labur.eus/argiola-bazkidetu](http://www.labur.eus/argiola-bazkidetu)
- b) Beheko inprimakia bete, moztu eta mahaira ekarri:
  - Arroa Behean eta Aizarnan: martxoak 1ean, arratsaldean, plazan.
  - Zestean: martxoak 2 eta 3, eguerdian eta arratsaldean, plazan.



### BAZKIDEAREN DATUAK:

Izena: ..... Abizenak(k): .....

NAN zenbakia: ..... Helbidea: .....

Udalerrria: ..... Auzoa: .....

Telefono zenbakia: .....

Email helbidea: .....

Generoa: Emakume  Gizon  Beste

argiola